

¡AMA MARIA!

Ez ikaratu, gizon argala
 Munduko loiez betea,
 Ez ikaratu, gora begira
 Zutika jarri zaitea.

Zikiña zaude, bai, egia da;
 Baño *ez* dezu goian, an
 Ama María begira ikusten
 Jaungoikoaren alboan?

Bitartekorik onena ura da
 Urasen da gure Ama,
 Lauburutika¹ Ostiral Santuz
 Jesus Jainkoak emana.

Goratu beraz, beldurrik gabe
 Biotzetik eskariak,
 Itzuli ditzan amazko bere
 Begi errukiz betiak.

Beregananu zaitez ausarki
 Nai du ta eska zaiogun,
 «Eskatu dakit nai banau—dio—
 Iñork iduki ni lagun.»

MIGEL ANTONIO IÑARRA-K.

(1) Cruz.